



Karmen egun handia izango dute gaur Alegian jaietako egitarauan

MARKA ▶ Aimar Irigoien
harri-jasotzailea marka jartzen
saiatuko da Larraitz auzoan

JAIK ▶ Meza nagusia, arku
tiraketa, dantzariak, bertsolariak,
kontzertuak... ere izango dira ▶ 5



Atzoko hamaiketakoa. N.LATABURU



«Aizkoran apustua ez galtzea» espero du Erasunek

ZIZURKIL ▶ Bihar 11:00etan Juan Manuel Erasun zizurkildarrak eta Jose Mari Olasagasti igeldoarrak Andoaingo Garate baserriko larreetan jokatu duten aizkora eta sega apustuak ikusmin handia piztu du. Bakoitzak aditua den kirolean erabaki nahi du lehia: Erasunek segan eta Olasagastik aizkoran. 12.000

euro daude jokoen eta duela hamabost urte jokatu zuten apustuaren errebantxa izango da. Hamar hilabetetan prestatzen «dan handia» egin dutela azaldu du Erasunek. Herri kirolak bizirik mantentzeko, apustuak «beharrezkoak» direla ere aipatu du, erakundeek txapelketei laguntzarik ez badiete ematen. IMANOL GARCIA ▶ 4

TOLOSA ▶

Pilota eskola behar dutela diote haur eta gazteek

42 lagun aritu dira
Beotibar frontoian
ikastaroa egiten ▶ 2

TOLOSA ▶

Bihar, ehiza zakur lehiaketa Montezkuen

09:00etan hasiko da
lehia; hiru multzotan
banatuko dituzte ▶ 3

IBARRA ▶

Nazioarteko topaketa batera joan da Alurr

Ezpeletan ariko da
asteburu osoan ▶ 6

PILOTA ▶

«Pilota eskola behar dugu»

Uda kirolak 2005 kanpainaren baitan, 42 haur eta gaztetxo aritu dira Beotibar frontoian pilota ikastaroa egiten; ikasturtean zehar kirol horretan jarraitzeko herrian pilota eskola behar dela diote

IRATXE ETXEBESTE

Beotibar pilotalekuan bildu ziren herenegun Asegargceko jokalaririk Oinatz Bengoetxea eta Asier Olaizola entrenatzeko. Pilotari profesional ez, eta afizionatu diren beste batzuk ere bazebiltzan hara eta hona eguerdia aurretik. Ordura arte hartua zegoen, izan ere, herriko frontoirik sonatuen. Haurrak eta gaztetxoak pilotan aritzeko, hain zuzen.

Uda kirolak 2005 kanpainaren baitan, guztira 42 ikaslele jardun dute uztailaren lehenaz geroztik egunero-egunero pilota ikastaroa egiten, eta atzo izan zuten azken eguna. 8 eta 12 urte bitarteko haurrak eta gaztetxoak bi taldetan banatu ditu Anizeto Lazkano pilota ikastaroen arduradunak adinaren arabera; horietatik txikiak goizez aritu dira pilota ikasten, eta helduenak, berriz, arratsaldean. Bada bi taldeetako ikasleek ordubetez izan dute hamabost egunotan pilotan aritzeko aukera.

Parte-hartzaile guztiak tolosarrak dira, eta Lazkanoren hi-



Uda kirolak 2005 kanpainaren baitan, 42 haur eta gazte aritu dira uztailaren lehenaz geroztik Anizeto Lazkanorekin pilota ikasten. I. ETXEBESTE

tzetan, badira Anoetatik etortri-tako lauzpabost ere. Azken horiek badute ikasturtean zehar ikastaroekin jarraitzeko aukera; tolosarrek, ordea, ez omen dute halako «zorterik», Beotibarren «ordu guztiak hartuta izaten direlako». Udako ikastaroan parte hartu dutenak kezu dira horregatik, pilota ikasteko kanpoko herrietara, «Bidaniara

edo Ibarrara» joan behar izaten dutelako.

Gauza bera diote haur eta gaztetxo horien gurasoek ere. «Tolosa bezalako herri batean ezin da hau onartu; dagoen eskaera handiari erantzun egin behar zaio—(100 bat haur eta gazte badira Tolosan pilota ikasi nahi dutenak)—; pilota eskola behar dute gure semeek kirol horretan aurrera egiteko». Ados dira kirolari gazteak. «Nazkatuta» omen daude pilotan aritzeko herritik kanpora joan behar izateaz. Mikel Otaegi da horietako bat. Tolosarrak lehenengoz hartu du parte udako ikastaroan, eta «mozten, gantxoak egiten, dejadak botatzen...» ikasi duela dio. Urtean zehar ere aritzen da pilotan, eta eskualdeko beste herriren batera joan behar izaten du horretarako. «Tolosan pilota eskolarik ez dagoenez, Bidaniara joaten naiz ikastera».

Nabari zaio Otaegiri pilota oso duela gustuko. «Zaila izango da lortzea», baina pilotari profesional izatea «ametsa» litzatekeela aitortu du. Begirunez begiratzen die Olaizolari eta Bengoetxeari. Haiei begira ere «asko ikasten» omen da,



Oinatz Bengoetxeari eta Asier Olaizolarekin egoteko aukera izan zuten herenegun pilota ikastaroan parte hartu zutenek. I. ETXEBESTE

izan ere. Alboan du Mattin Sotilla tolosarra. Udako ikastaroko ikaslerik zaharrenak dira biak, eta batzuk «denbora pasa» joaten diren bezala, haiek «ikas-teko gogoa» dutelako eman omen dute izena bertan. «Kirol polita» dela, eta pilotan aritzea «ikaragarri» gustatzen zaiola dio Sotillak. Hark ere nahi luke pilotari profesional izan. Horretarako, ordea, badaki jakin entrenamendu saio ugari egin behar dituela, eta Tolosan bizi-ta, «zailtasunak» dituela esan du: «Egunero ordubete gutxi geratzen da; entrenamendu gehiago behar ditugu indarra hartzeko, baina ez udan bakarrik; urte osoan ere bai».

Gauza bera uste dute biek ala biek: herri txikietan, handiagoetan baino «afizio handiagoa» dagoela pilotarekiko. Eta horri argudioa bilatu diote: «Futbol zelaia eta ez dituzte herri txikietan; frontoiak, or-

dea, bai. Hori dela-eta pilotan aritzen dira jolasean, eta eskarmentua hartzen dute». Nerabezaroan sartzearekin batera, aurrera ari dira egiten Otaegi eta Sotilla kategorietan ere, eta jubenil eta kadete mailan jarduterako «indarra hartu» behar dutelakoan dira, gainerakoan, ez dutelako bateko eta beste txapelketatan maila egokia ematerik izango.

Ez dute, ordea, etsitzen, eta noizbait, herrian pilota eskola sortuko dela sinesten dute. Modu horretara ez bailukete kanpoko herriren batera joan behar gehien atsegin dutena egiteko. Bienbitartean, horrela jarraituko dutela adierazi dute. «Ibarrara ez bada Anoetara, eta bestela Bidaniara» joaten. Amaitu dute udako pilota ikastaroa, eta ikasi dute bertan ikasi beharrekoa. Orain, eskolara itzuli aurretik, elkarrekin jardungo omen dute entrenatzen.



MIKEL OTAEGI
PILOTA IKASLEA

«Tolosan pilota eskolarik ez dagoenez, Bidaniara joan behar izaten dut ikasturte osoan zehar pilota ikastera»



MATTIN SOTILLA
PILOTA IKASLEA

«Batzuk denbora pasa etortzen dira udako ikastaroetara; guk pilota oso gustuko dugulako eman dugu izena»

ARAMBURU
Salgai (Tolosa). Pisua igogailuarekin Larramendi kalean 112m2, Bista zoragarriak, Salgai (Tolosa). Pisua Belate Ibilokian, Bista zoragarriak
Salgai (Tolosa). Lokal komertzialak Nagusia kalean eta Belate Ibilokian
Alokatzeko (Ibarrara). Garajea Euskal Herria kalean.
Alokatzeko (Tolosa). Lokal komertziala Erremontari kalean.
Alokatzeko (Tolosaldean). Garajea Pedro de Tolosa kalean, Araba Etorbidean.
Alokatzeko (Salou). 4 edo 6 laguntzako 2 logelako apartamentua. Iraia.
943 65 17 13 / 677 46 09 16

TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Zorion agurrak. Lagunen edo senitartekoren bat zoriondu duzula eta kanpoan dagoen norbaitek ikustea nahi duzula? HITZAN argitaratutako zorion agur guztiak ikus ditzakezu Internet-en. Sartu eskualdeko euskarazko egunkariaren webgunera!

iragarki laburrak ▶

LANA
Sukaldaria. Asteburuetako eta oporren ordezkapena egiteko sukaldaria behar da. Deitu 943 639 19 33 telefono zenbakira.
Igeltseroa. 26 eta 35 urte arteko igeltseroa behar da, 2. mailako ofiziala. Fabxada, estaldura eta aldamio montajearen aditua. Bere autoa duena. 620 800 186 (Josebo).

MENDIA ▶

Mendi irteera eta arroil jaitsiera, Oargirekin

Hilaren 22tik 25era antolatu du mendi elkarteak; bata edo bestea, aukeran

L. MONTES

Oargi elkarteak mendi irteera eta arroila jaitsiera antolatu ditu hilaren 22tik 25era bitartean. 22an, ostirala, abiatuko dira Tolosatik Escarri-llara (Huescako Pirinioak), arratsaldean.

23an, larunbata, Midi d'Os-sau igotzea (2.884 metro) edo Gorge du Soussoueu arroila jaitsiera izango ditu aukeran izena ematen duenak. 24an ere, igandea, Balaitous mendia igo (3.144 metro) edo Gorge du Broset arroila jaitsi ahal izango da. Eta 25ean, astelehena, azkenik, Gorge du les Chutes arroila jaitsiko dute, eta etxealdera abiatuko dira.

Irteera joan nahi izanez gero izena «lehenbailehen» ematea eskatu dute Oargi mendi elkarteok. Horretarako, 637 83 03 80 telefono zenbakira deitu behar da. Zalantzak argitu nahi duenak ere informazio gehiago jasoko du bertan.

GERTAKARIAK ▶

«Etengabeko esamesen harira», azalpen oharra

ERREDAKZIOA

«Herrian batera eta bestera ibili diren etengabeko esamesen harira», eta haien seme-alaben ohare eta besteritate eskubideak babesteko asmoz, San Joan jaietan ustezko bortxaketa delituan inplikaturako gazteen gurasoek azalpen ohar hau argitaratzeko eskatu diote HITZARI.

Era honetan, «zigor penalik jaso duen ekintzarik ez» dela esistitu adierazi nahi dute gurasoek. Era berean, «arrazo horrengatik ireki ziren eginbide penalak behin betiko amaitutzat jo» dituztela azpimarratu dute.

EHIZA ▶

Ehiza zakurrik onenak lehian ikusteko aukera bihar, Montezkuen

I. Ehiza Zakur Lehiaketa Herritarra eta Probintziala antolatu du Tolosako Ehiztari Elkarteak; izen-ematea, egunean bertan



Hiru multzotan banatuko dituzte parte-hartzaileak; tentu handiz egin beharko dute lana guztiek. HITZA

LEIRE MONTES

Ehiza zakurrik onenak lehian ikusteko aukera izango dute zaleek bihar goizean. Tolosako Ehiztari Elkarteak antolatuta, Gipuzkoako Ehiza Federakuntzaren eta Garmendia banaketak enpresaren laguntzarekin, I. Ehiza Txaku Lehiaketa Herritarra eta Probintziala jokatuko da, Montezkueko zelaian.

09:00etan hasiko da lehia. Ordu erdi lehenago, 08:30ean, zabalduko dute izen-ematea. 10 euro ordaindu behar dira zakurreko; jabe batek zakur bat baino gehiago aurkeztuko balitu, baina, lehenengoagatik 10 euro ordaindu beharko lituzke, eta 6 euro bigarrenagatik. Bazkideentzat 6 euroko tarifa izango da. Tolosako Ehiztari Elkarteak Jose Mari Olariagak azaldu duenez, «jabe bakoitzak nahi adina zakur aurkeztu ahal izango ditu lehiaketara».

Zakurrek eta jabeek egin beharreko lanaren berri ere eman dio HITZARI antolatzaileak: «Lehenik eta behin, eta zakurra begira ez dagoela, galeperrak zabalitzen dira zelaian. Gero, zakurrak piezak bilatu, aurkitu, hartu eta nagusiari eman behar dizkio».

Tentu handiz egin beharreko lana da, epaileek zorrotz neur-

DATUAK ▶

Lehiaketa.

- ▶ 09:00etatik aurrera.
- ▶ Montezkueko zelaian.
- ▶ Izen-ematea.
- ▶ 08:30etik 09:00etara, Montezkuen bertan.
- ▶ Lehen zakurragatik, 10 euro; bigarrenagatik, 6 euro.
- ▶ Bazkideek, 6 euro.

Multzoak.

- ▶ Arraza nazionala (hispanier...).
- ▶ Arraza britaniarra, kontinental (setter...).
- ▶ Tolosako Ehiztari Elkartearen zakurrak.

Sariak.

- ▶ Lehen eta bigarren multzoetan, lehendabiziko lau sailkatuei.
- ▶ Hirugarren multzoan, irabazleari.



tzen baitituzte mugimendu guztiak. «Galeperrak zenbat eta azkarrago aurkitu, gero eta puntu gehiago jasoko ditu zakurrak. Piezak hartzeko garaian ere kontu handiz aritu behar du animaliak. Hau da, nagusiak agindua eman baino lehen harrapatzen baditu, epaileek zigortu egingo dute; zakurrak jabeen aginduei nola erantzuten dien oso garrantzitsuztat jotzen dute, eta horren arabera ere banatzen dituzte puntuak. Estiloa ere kontuan hartzen dute».

Parte-hartzaile guztiak hiru multzotan banatuko dituzte antolatzaileek. «Alde batetik, arraza nazionala deitzen zaiona izango dugu: hispanier zakurrak, besteak beste. Bestetik, arraza britaniarra izango dugu, kontinental, setter motako zakurrekin. Eta hirugarren multzoa, azkenik, Tolosako Ehiztari Elkarteak osatuko dugu».

Multzo bakoitzeko lehendabiziko laurak jasoko dute txapela, garaikurra eta saria. Hirugarren multzokoentzat, antolatzaileentzat, berriz, sari bakarra izango da, lehen sailkatuarentzat.

Olariaga, Tolosako Ehiztari Elkartearen izenean, Montezkuea igotzera animatu du jendeguztia.

MERKATARITZA ▶

Gaur, globo aerostatikoan ibiltzeko aukera

Sanjoanetan bertan behera geratu zen, eta Alde Zaharra-Dendak-ek berriro antolatu du

L. MONTES

San Joan jaietarako jarri zuen globo aerostatikoa Alde Zaharrak-Dendak elkarteak, «festa horietan Alde Zaharreko merkataritza sustatzeko asmoarekin». Globoan ibiltzeko aukera izan zuten zenbaitek; baina, eguraldi txarra zela eta, bertan behera utzi behar izan zuten saioa. Hala, «jendeari beste aukera bat eskaintzeko», berriro antolatu dute ekimena. Globoan ibili nahi duenak 20:00etatik aurrera Euskal Herria plazan agertu behar du. Ez da erosketari txartelik aurkeztu behar izango.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

- ▶ Alegialdea. Osasun z.: 653212
- ▶ Anoeta-Alkiza-Hernalde. Medikua: 65 23 39
- ▶ Asteasu. Medikua: 692423
- ▶ Baliarrain. Medikua: 889003
- ▶ Berastegi-Elduain. Medikua: 683361
- ▶ Bidegoian. Medikua: 681134
- ▶ Ibarraldea. Osasun ebea: 672411

- ▶ Ikaztegieta. Medikua: 653329
- ▶ Irura. Osasun zentroa: 690720
- ▶ Leitza. Osasun z.: 948 510800
- ▶ Orendain. Medikua: 655595
- ▶ Oresa. Medikua: 682228
- ▶ Tolosa.

- ▶ Anbulatorioa, larriald:461111
- ▶ San Esteban: 006800
- ▶ Gernikako arbola: 006900
- ▶ Amaroako dispen.: 672637
- ▶ Asunzioz klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
- ▶ DYA: 672536
- ▶ Gurutze Gorria: 674888
- ▶ Villabona. Anbulat.: 006970
- ▶ Zizurkil. Aiztondo zerb: 693930

Garraioak.

- ▶ Renfe: 902 24 02 02
 - ▶ Donostiako autobusa: 361740
 - ▶ Tolosaldea bus: 650621
 - ▶ Leitzaran autob.: 948 221015
 - ▶ Taxia: 670420
 - ▶ Taxia (Leitza): 608 873016
- Besterik.**
- ▶ Ertzaintza: 538820
 - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
 - ▶ Tolargi: 650016
 - ▶ Iurramendi egoitza: 670325
 - ▶ Tolosa gasa: 675320

ADUNA ▶ KIROLA



Abian da II. Transernio Txapelketa

I. Garcia ▶ Atzo eman zitzaion hasiera Adunako II. Transernio Eskupilota Txapelketari. Eskupilotan benjamin, alebin, infantil eta kadete mailako bikoteak ariko dira herriko frontoian lehiatzen ostiral arratsaldetan eta igande goizetan. Finalak abuztuaren 13an jokatuko dira, herriko festen baitan. I. GARCIA

VILLABONA ▶ AISIA



Udako ludotekako haurren antzezlanak

I. Garcia ▶ Udako ludotekan egun berezia izan zuten atzokoan. 3 eta 10 urte bitarteko haurrek gurasoen aurrean antzerkiak egin zituzten Olaederra kiroldegian. Gazte-txoenek koreografiak egin zituzten eta zaharrenek antzezlanak burutu zituzten, astean zehar beraiek prestatutako mozorroekin. I. GARCIA

JUAN MANUEL ERASUN ▶ HERRI KIROLARIA

«Aizkoran apustua ez galtzea da helburua»

Ikusmina sortu du Erasun eta Olasagastiren arteko apustuak; bakoitzak bere kirolean erabaki nahi du lehia, Zizurkilgoak segan eta Igeldokoak aizkoran, eta jokoan dauden 12.000 euroak poltsikoratu

IMANOL GARCIA

Juan Manuel Erasun zizurkil-darrak ikusmin handia sortu duen apustua du bihar, 11:00etan hasita, Andoingo Garate baserriko larreetan. Jose Mari Olasagasti izango du aurkari. Guztira bi orduko lanean, 20 kanaerdiko ebaki eta ondoren denbora osatu arte segan ariko dira. 12.000 euro dituzte jokoan.

Zer moduz zaude animoz?

Horrelako lan bat egiteko animoz ondo egon behar da bes-

tela oso zaila da garantiaz egitea. Prestaketak luzeak izan dira, baina ustez ondo prestatu naiz.

Ikusmin handia sortu du apustuak.

Horrelako apustuak oso gutxi jokutzen dira. Azkena eta lehenengo orain hamabost urte jokatu zen eta berriz protagonista berdinak gara eta horrek esan nahi du apustu gogorra dela, zaila prestatzen, kostu handia duena. Lan handia egin dugu hamar hilabete hauetan prestatzen eta jendeak ikusteko erakargarria da, ilusio handia dago eta diru dezente ari da jokatzeko.

Apustu honetaz aparte, mundu hori urte hauetan jaitsi egin da, ezta?

Ez dago dudarik: lehen apustu gehiago egiten zen, jendea prestatu egiten zen. Orain ere prestatu egiten da, beste era batetara. Egia da apustu batek ardura handia duela, irabazle bat eta galtzaile bat dago, eta noski inork ez du galdu nahi. Lehen errazago zen kirolari batek laguntza izatea, lagun



I. GARCIA

talde bat izatea. Nire lagun taldeak lagunduko ez balit, nik ezinezkoa izango nuke horrelako apustu bat bakarrik prestatu, kostua handia duelako eta

babesa beharrezkoa delako. Horregatik gero eta zailagoa dago, baina hala ere herri kirolak bizirik mantentzeko beharrezkoak dira apustuak, non eta txapelketei eta bestelako torneoei instituzioen aldetik laguntza gehiago ez zaien ematen. Txapelketak badaude, baina ez dira erakargarriak, ez dagoelako saririk.

Orain hamabost urte Olasagastik irabazi zuen.

Bai berak irabazi zuen eta hau

errebantxa bat da. Apustua baldintza beretan da eta ea oraingoan nik irabazten dudana. Gogor entrenatu naiz horretarako eta ilusioa badaukat apustua aurrera ateratzeko.

Urte hauetan zer aldatu da?

Nik uste fisikoki ez dugula irabazi, hamabost urte berandua gozaila da. Baina herri kiroltan asko eragiten duen baldintza irabazi dugula asko. Nik, egia esan, garai hartan, urtebeteko esperientzia besterik ez nuen aizkoran, hasiberria nintzen. Berak segan ere ez zeukan esperientzia gehiegi. Bakoitza bere lanean ondo egon zen, baina bestearen lanean nahiko gaizki egon ginen. Orain dezente hobetu dugu nik aizkoran eta berak segan eta horregatik, nik uste dut orain hamabost urte baino lan hobea egingo dugula.

Non erabakiko da apustua?

Berak nahiko du aizkoran erabakitzea eta nik segan. Nik garbi daukat aizkoran ezin dudala apusturik galdu. Orain hamabost urte aizkoran galdu nuen. Ia hamasei minutu atera zitxidana eta buelta eman ezina izan zen hori niretzat. Beraz, nire helburua da aizkoran ez galtzea apustua eta segan irabaztea.

**ANOETAKO UDALA****IRAGARKIA**

Udalbatzak, 2005eko uztailaren 7an eginko ohizko bilkuran, Anoeta Lantzen S.A. Azterketa Batzordearen txosten eta Sozietatearen Estatutuak behin-behineko izaeraz onetsi ziren.

Aipatutako akordioa eta zipaditutako espedienteak informazio publikoan jartzen dira 30eko egun naturalez, ondorengo arau hauen barruan:

- Erakutsita dagoen lekua: Idazkaritza - Kontuhartzaila bulegoa
- Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, errekamazioak aurkezteko epea: hogeitahamar egun natural, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik hasita.
- Errekamazioak aurkezteko bulegoa: Udaletxeko sarrera erregistroan, bulego orduetan.
- Errekamazioak jasotzen dituen organoa: Udalbatza Osua.

Anoeta, 2005eko uztailak 14
ALKATEA



ALEGIA ▶ JAIK

Egun handiena ate joka

Azken bi egunetan sartuko dira gaur Karmen jaiak; Aimar Irigoien marka hausten saiatzea izango da eguneko ikuskizuna Larraitz auzoan



Jolas parkea izan zen Larraitz auzoan haurrek gozatzeko. N. LATABURU



Eguzkiak babestu ziren herri bazkariko partaideak. N. LATABURU



Mendi martxaren ondoren hamaiketakoia izan zuten atzo jubilatuek herriko plazan. N. LATABURU

NOELIA LATABURU

Herriko zaindariaren egun handia dute gaur txintxarriek. Horrela, jaien ibilbide erdia burutu duten honetan, Karmen Eguna ospatuko dute. Ohiko diana izango da, txistulari eta trikitilariaren eskutik. Ondoren meza nagusia egingo dute, non Txintxarri Abesbatzak heldeak abestuko duten. 11:00-etatik aurrera hainbat kantu eskainiko ditu, horien artean Lucas Guridik Karmen Egunerako bereziki konposatutako *Flos Carmeli* mezako Gloria.

Atzo jende mordoak hurbildu zen Alegiara, gaueko ekitaldiak erakarrita. Baina egunak ere izan zituen batik bat jubilatuz zein gaztetxoentzako tar-

tea. Izan ere, jolas parkea antolatuz zuten Larraitz auzoan, haurren gozamenerako. Jubilatuek ere bere egun handia bizitu zuten. Goizean goiz mendi martxa egin zuten eta ondoren hamaiketako izan zuten sari herriko plazan. Gauean Split 77 eta Javi P3Z orkestra taldeen kontzertuan jende ugari bildu zen, zahagiardo bateratuaren ostean. Halaber, zahagiardo bateratua «arrakastatsua» izan zen eta «giro polita» sortu zen bertan. Festa alternatiboetan, berriz, herri bazkaria izan zuten, urtero legez. Ondoren, gainera, Xantoxen omenezko txapelketako sari banaketa burutu zuten. Kontzertuak ere izan ziren entzungai Gaztetxean —gau guztian zehar irekita

mantendu zutena—, Zorabiok, Trikizio eta Ayvala taldeen musikaren eskutik.

Gaur herri kirolen saioak hartu du garrantzia festa ofizialen egitarauaren barruan. Izan ere, Aimar Irigoien erreiz-darra marka hausten saiatuko da, bost minutuko tandan 225 kiloko harria altxatuz, 18:00-etatik aurrera Larraitz auzoko zelaian. Miren Urkiolak ere emanaldia eskainiko du, 88 ki-

loko kopa eta 60 kiloko bola altxatuz. Honen ostean, aizkolariak izango dira; Joseba Otaegi et Arkaitz Iriarte, batetik, eta Jon Rekondo eta Xabier Minde-

gia, bestetik. 19:00etan, berriz, afizionatuen pilota partidak jokatuko dituzte, hasiera batean iganderako iragarrita baziren ere.

EGITARAUA ▶ GAUR

FESTA OFIZIALAK

09:00. Herriko txistulari eta trikitilariaren diana.

09:30. Giroarte dultzaina taldeak alaituriko diana.

10:30. Herriko txistulari eta trikitilariaren kalejira.

11:00. Meza nagusia.

Txintxarri abesbatzak emanaldia eskainiko du.

11:00. Ordiziako Arco Natura taldearen eskutik arku tiratzea, nahi duenak parte hartzeko aukera izango duenarik.

12:00. Txakolin eta sagardo dastaketa sardina eta txorizo erreekin, Elena Zubillaga eta Ainhoa Zubillagak alaiturik.

17:00. Alegiako dantzarien emanaldia Larraitz auzoko plazan.

18:00. Herri kirolak Larraitz auzoan. Harri-jasotzaileak, Aimar Irigoien marka hausten saiatuko da, 5 minutuko tandan 225 kiloko harria altxatuz. Miren Urkiola 88 kiloko kopa eta 60 kiloko bola altxatuko ditu. Aizkolariak, Joseba Otaegi eta Arkaitz Iriarte (Igartza) batetik eta Jon Rekondo eta Xabier Mindegia bestetik.

19:00. Afizionatuen pilota partidak.

22:30. Bertsolariak zineman. Andoni Egaña, Unai Iturriaga, Jexus Mari Irazu eta Amets Arzallus. Gai jartzailea Felix Irazustabarrena alegiarra izango da.

24:00. Goiz aldera arte, Makro diskoteka izango da herriko plazan.

19:00. Afizionatuen pilota partidak.

22:30. Bertsolariak zineman. Andoni Egaña, Unai Iturriaga, Jexus Mari Irazu eta Amets Arzallus. Gai jartzailea Felix Irazustabarrena alegiarra izango da.

24:00. Goiz aldera arte, Makro diskoteka izango da herriko plazan.

19:00. Afizionatuen pilota partidak.

22:30. Bertsolariak zineman. Andoni Egaña, Unai Iturriaga, Jexus Mari Irazu eta Amets Arzallus. Gai jartzailea Felix Irazustabarrena alegiarra izango da.

24:00. Goiz aldera arte, Makro diskoteka izango da herriko plazan.

19:00. Afizionatuen pilota partidak.

22:30. Bertsolariak zineman. Andoni Egaña, Unai Iturriaga, Jexus Mari Irazu eta Amets Arzallus. Gai jartzailea Felix Irazustabarrena alegiarra izango da.

24:00. Goiz aldera arte, Makro diskoteka izango da herriko plazan.

19:00. Afizionatuen pilota partidak.

22:30. Bertsolariak zineman. Andoni Egaña, Unai Iturriaga, Jexus Mari Irazu eta Amets Arzallus. Gai jartzailea Felix Irazustabarrena alegiarra izango da.

24:00. Goiz aldera arte, Makro diskoteka izango da herriko plazan.

19:00. Afizionatuen pilota partidak.

22:30. Bertsolariak zineman. Andoni Egaña, Unai Iturriaga, Jexus Mari Irazu eta Amets Arzallus. Gai jartzailea Felix Irazustabarrena alegiarra izango da.

24:00. Goiz aldera arte, Makro diskoteka izango da herriko plazan.

19:00. Afizionatuen pilota partidak.

22:30. Bertsolariak zineman. Andoni Egaña, Unai Iturriaga, Jexus Mari Irazu eta Amets Arzallus. Gai jartzailea Felix Irazustabarrena alegiarra izango da.

24:00. Goiz aldera arte, Makro diskoteka izango da herriko plazan.

19:00. Afizionatuen pilota partidak.

22:30. Bertsolariak zineman. Andoni Egaña, Unai Iturriaga, Jexus Mari Irazu eta Amets Arzallus. Gai jartzailea Felix Irazustabarrena alegiarra izango da.

24:00. Goiz aldera arte, Makro diskoteka izango da herriko plazan.

19:00. Afizionatuen pilota partidak.

22:30. Bertsolariak zineman. Andoni Egaña, Unai Iturriaga, Jexus Mari Irazu eta Amets Arzallus. Gai jartzailea Felix Irazustabarrena alegiarra izango da.

24:00. Goiz aldera arte, Makro diskoteka izango da herriko plazan.

HORTZ-KLINIKA
Manuel Renobales Iturbe doktorea
M^a Pilar Martínez Andueza doktorea
Larraitz, 15-1. esk.
Tel.: 943 65 41 12 ALEGIA

ONDA
janaridenda
Ondo pasa festak!
San Juan, 44 • ALEGIA • Tel.: 943 65 30 40

ISKIÑA
TABERNA
Goizean Salda
Gauean martxa!
INTERNET
San Juan, 59 ALEGIA
Tlf.: 943653097

IBARRA ▶ KULTURA

Gauargi jaialdian ariko da Alurr taldea

Euskal Herriko eta nazioarteko dantza taldeen topaketa Ezpeletan izango da

IÑIGO TERRADILLOS

Atzo hasi eta datorren asteartea bitarte egingo da Gauargi jaialdia Ezpeletan, eta Ibarrako Alurr dantza taldeak bertan hartuko du parte estrainekoz. Munduko dantza tradizionalak gaztetxo taldeen bidez ezagutaraztea helburu duen jaialdia da Gauargi eta 1996. urtean sortu zen Kanbon. Pasa den urtetik, aurrerantzean ekitaldiak Ezpeletan egitea erabaki zuten.

Ibarrakoarekin batera, beste lau euskal dantza taldek egingo dute erakustaldia: Ezpeletako Ezpela taldea, Hendaia Gurea, Irungo Eraiki eta Eskuilako Eskuilarra taldea. Baina

Euskal Herriko ezezik nazioartetik ere joan dira, hain zuzen ere, 9 eta 15 urte artean dituzten gaztetxoak elkar topatzea eta kulturak ezagutaraztea izaten baita xede nagusia. Horrela, Moldabiako Fantazie taldearen, Armeniako Aravot Hayastan-en eta Mexikoko Tonalli Ambar-en dantza emaldiriez gozatu ahaliko dute jaialdia ikustera joaten direnek. Senegal eta Sri Lankako taldeek etortzerik izan ez dutenez egun bat atzeratu beharra izan dute jaialdia, eta horien ordez Errusiako Sayzanak eta Serbiako Abrasevic taldeak izango dira. Denera berrehun gaztetxo inguru jasoko dituzte Ezpeletan, eta, berrogeita hamar



Alurr dantza taldekoen gaztetxoaren emanaldi bat. HITZA

bat familiaren etxeetan eduki dute jaialdiak irauten duen bitartean.

Ibarrako Alurr dantza taldeak oso pozik hartu du jaialdira joateko gonbita. «Jaialdi honen berri izan genuenean izena

eman genuen eta baiezkoa jaso genuenean ilusio handiarekin hartu genuen albisteak, batez ere gaztetxoek», azaltzen du Eli Nosellas Alurr-eko arduradunak. «Tratu oso ona izan dute gurekin hasieratik, eta

erraztasunak baino ez dizkigute eman, oso gustura gaude», gehitzen du. Izan ere, Nosellas-ek azaldu bezala poztasunez jaso zuten jaialdiko antolatzaileek Ibarrakoen aldetik bertan hiru egun igarotzeko nahia: «parte hartzen duten gainerako euskal taldeek euren emaldira amaitu bezain laster itzultzen omen dira etxera, eta jaialdiaren asmoa dantza eta kultura ezberdinak trukatu eta jende berria ezagutzea denez oso pozik hartu zuten gure eskaera», dio Alurr-eko arduradunak.

Edu Muruamendiarez dantza irakaslearen taldeetako gaztetxoak izango dira Ezpeletan, 12, 13 eta 14 urteko 12 neska eta mutiko bat. Eta *Agurra* eta Muruamendiarezek berak landuriko *Bazinen bazara*, *herri*, *Banako*, *Plazara*, eta *Obalao* dantzak dituzte. Gaur gauetan izango dute horretarako aukera Armenia, Mexiko, Moldavia eta Ezpeletako taldearekin batera.

Hainbat ekitaldiz gozatu ondoren bihar itzuliko dira Ibarrara. Aurretik, ordea, bazkarian bilduko dira beste taldekoekin, eta bakoitzaren lurraldeko gauza tipikoen trukateta egingo dute.

BERASTEGI ▶

Antzerki taldearen emanaldia gaur

Berastegin antzerki emaldiriaz gozatzeko aukera izango dute gaur, izan ere herriko antzerki taldeak bi antzezlan eskainiko ditu. Muñagorri eskolako gimnasioan izango da 19:15ean eta *Maritxu nora zoaz* eta ondoren antzerki sorpresa eskainiko dituzte. Berastegiko antzerki taldeak izaz sortu zen eta herriko 10 lagunek osatzen dute. Gaur ikusi ahaliko diren antzezlanak herritarren gustukoak izan daitezzen gogor egin du lan taldeak.

BERASTEGI ▶

Calahorrarako autobusa beterik dagoeneko

Gaztainondo jubilatuen elkartetik jakinarazten dute Calahorrara antolatutako egun irteerarako autobusa beterik dagoela. Datorren ostegunean, uztailaren 21ean, izango da egun pasa, eta 8:30ean irtengo dira herritik. Calahorrara iristean eliza eta azoka bisitatuko dituzte, eta ondoren Azagrara joango dira bazkari legea egitera. Jubilatuen elkarteko zuzendariak eskerrak eman nahi izan ditu bidaia antolaztea posible egin dutenei.

IBARRA ▶

San Bartolomeko zozketako txartelak salgai

Ibarrako San Bartolome jailetako zozketako txartelak salgai daude. Ondorengo lekueetan eskuratu ahal izango dituzte herritarrek txartelak: Ibarrako Danon Txokoa, Arkaitz-azpi, Txumitxa, Atari, Sendi ekintza eta Zubiaurre tabernetan. Txartelak saldu-ta bilduko den dirua, beti bezala gehien behar dutenei laguntzeko bideratuko da. Aurtengoan lortutako diru horrekin Txileko herritarrei lagunduko zaiela adierazi dute.

BELAUNTZA ▶ KULTURA

Antzerkiarekin gustura txikiak

Belauntzako, Leaburuko, Gazteluko eta Orexako ludotekako gaztetxoek ederki igaro zuten atzo goizean Belauntzako kultur etxean izan zen antzerki saioarekin. Hain zuzen ere, Irrintzi antzerki taldearen *Bakartxoaren zapatilak* antzezlanak ikusteko aukera izan zuten bildu ziren 30 inguru lagunek.



Atzoko antzerki saioko une bat. I.TERRADILLOS

▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

Gipuzkoan 50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio berean

ESKELAK

19:00ak arte hartzen dira

Telf.: 943 65 56 95

tolosaldean@tolosaldecohita.nfo

LEITZA ▶ HEZKUNTZA

Batxilergoko aparteko sari bat irabazi du

Naiara Perurenak lortu du Gipuzkoan bost saritatik bat, Laskoraindik joanda



Naiara Perurena, iaz Kanadan egin zuen egonaldian. HITZA

JAIONE ASTIBIA

Naiara Perurena Aizkorbe leitzarrik Batxilergoko aparteko saria eskuratu berri du. Sari hau Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak banatzen du, «Batxilergo osoko batz-bes-teko nota 8,75eko» duten ikasleen artean, hori eskuratu ahal izateko jartzen duten frogagaitzen artean. Horrela, Gipuzkoako ikasle-teeetatik joandako 135 ikaslek Donostian egin zuten sarirako frogara, ekainaren 18an; Tolosako Laskoraindik joandako ak hiru eta horien artean Naiara

Perurena bera, ohorezko matrikularekin bukatu baitzuen Osasun Zientzietako Batxilergoa. Ikasle ona izaki, 17 urteko neskatx honek, jaso du sari horietatik bat; Gipuzkoako ikasle-teeetako 5 ikaslek lortu dute ohore hori eta bat, bera da: «Laskorainen, tutoreak frogagaitera animatu gintuen eta joan egin ginen. Eta ezusteko galanta izan da», aitortu zion HITZARI berak.

Ohoreaz gain, zalantzarik gabe saria ere ez dute nolana hikoia izanen: hurrengo urtean oporraldian egiteko, atzerrian egonaldia eta 600 euro inguruko diru saria ere bai.

NAIARA PERURENA ▶ SARITUA

«Azterketa egitera joan nintzen eta ezustekoa izan da»

Naiara Perurena egunotan Ingalaterran dago, Manchester hiririk 30 minutu bidera dagoen Stockport-en, uztailaren aurranean, ingelera ikastera joana. Bere hango etxeko telefono zenbakia lortu eta azkenik herenegun egon ginen berarekin, ordu aldaketak tarteko zirela, gure ingelerrako ezagutzak joan jarri ondoren. Orain berriro lortu duen Batxilergoko aparteko sariak ez ezik, bertan egiten ari den egonaldiaz ere aritu ginen berarekin, aukeraz baliatuz. Honatx.

Nola jakindu zenuen berria?

Azterketa egin genuen lekuan, emaitzekin zerranda jarriko zutela esan zuten, bestela, ar-belean telefono zenbaki bat jarri zuten gero deitzeko. Aitak deitu zuen, ekainaren 30ean, eta handik baiezta zioten saria jaso nuela. Behin betikoz, gaur [uztailak 14] aterako ziren zerrandak.

Ezustekoa izan zen?

Bai, ez nuen inondik ere espero, eta ezusteko handia izan da. Oker ez bagaude, frogara bat egin zenuten, 135 ikasle zintzen. Zer modutako frogara izan zen: gai guztiei buruzkoa, Selektibitatearen tankeran, edo?

Aurrera hizkuntza aukeratu behar zen. Nik euskaraz egin nuen. Lau azterketa edo ziren. Bat, gaia emanda, idazlana egitea: niri bikote homosexualak ezkontzeko duten eskubideari buruzkoa jarri zidaten; gero, ingelera, testua aztertu eta gramatikako ariketak genituen egin beharrek eta ulermen galderak ere bai; eta gero, Batxilergoko gure modalitateko bi gai aukeratu, nik biologia eta kimika egin nituen, eta batean

galdera laburrak eta garatze-gaia eman zizkiguten, eta bestean buruketak.

Erraz egin zenuen?

Egin eta bale, egin nuen. Selektibitateko ikasitako fresko neukan dena eta etsamina egitera joan nintzen. Gero, ezustekoa hartu nuen.

Nolatan aurkeztu zinen horrelako frogara batera?

Laskorainen, gure tutoreak esan zigun. Ez genuela deus ere galtzen eta egiteko, beste-rik gabe.

Zer-nolako saria jasoko duzu? Noiz emanen dizute?

Hurrengo urtean atzerrian egonaldi bat hizkuntza bat ikasteko; eta gero 600 bat euro dirutan.

Nora joanen zara?

Ingelera ikastera.

Oraitxe hala zaude. Gustura? Zer moduzko familia egokitu zaizu?

Oso gustura. Oso familia jatorra egokitu zait eta oso ongi moldatzen naiz beraiekin.

Bekaren batekin zaude, ezta?

Bai, Ministeritzako bat edo. 40 lagun gaude elkarrekin, 2 begiralarekin. Euskal Herriko bakarra naiz.

Zer egiten duzu egunean zehar?

Goizean eskolak izaten ditugu, bertako ikasle batean, ingelerrakoak; arratsaldetan, berriak, ekintzak izaten ditugu: kirolak, museoen batera ikustaldia... Hori astez. Eta larunbatetan egun pasa joaten gara. Orain arte Liverpool, Manchester, York... hirietan izandu gara. 18:30 alderako etxera itzultzen gara afaltzera. Hemen halako orduetgia dute. Jeiki, berriz, 7:30etik segituan.



HITZA

Baina ez da lehenengo aldia, udan, horrela, kanpora ateratzen zarena. Hizkuntza gustuko dituzu?

Aurten hirugarren aldiz ateratzen naiz. Lehengo urtean, Kanadan egin nuen hilabete, Toronto ondoan, Oacville-n; eta orain dela 2, Irlandan, Galway-n. Hizkuntzetan batez ere ingelera dut gogoko. Eta modu honetan asko hobetzen da: etorri nintzenetik alde nabaritzen dut, hobeki ari naizela.

Hurrengo ikasurtean, unibertsitatera.

Bai.

Zer ikasteko asmoa duzu? Non?

Farmazia ikasten hasteko asmoa dut. 3 urte egin eta gero, biokimika, beste bitan, beti ere gaia eta baliozkotu badatezke. Nafarroako Unibertsitatean hasiko naiz.

Bitartean oporraldiaz gozatu beharko da. Noiz arte zaude hor?

29an itzuliko naiz hara.

Tira, sanferminek gaur dute azken eguna, baina laistera dira herriko festak. Gustuko dituzu?

Bai, gainera, aurten aprobetxatu beharko dugu, iaz egonaldia zela eta, galdu egin baitnituen. Eta hurrengoan ez dakidanez noiz egokituko den...

Ia bada, gustura jarraitzen duzun, eta berriz ere, zorionak eta itzulera arte.

Eskerrik asko, ongi segi eta ikusi arte. ◀

UDA HONETAN JANTZI EZAZU
HITZAREN KAMISETA

SALGAI HITZAREN egoitzan eta
OSKI GAZTEA
Emeterio Arrese, 5 • Tel.: 943 65 56 21
TOLOSA



AGENDA ▶

DEIALDIAK

Alegia. Txinbarri abesbatzak 11:00etako meza nagusian abestuko du.

Ibarra. ENAren tramitazioa egin eta ziurtagiria dutenek deitu 635 00 94 96 telefonora berriro tramitatzeko.

Altzo. San Inazio jaietan uztailaren 29an zikro jatea izango da. Txartelak salgai daude Arandia Jatebean 18 eurotan.

Berastegi. Gaztainondo jubilatutako elkartek uztailaren 21ean Calahorrara irteera antolatu du. Izen-ematea, elkartearen edo 943 68 32 02 zenbakian.

Tolosa. Picos de Europa (Kantabria) mendi irteera antolatu du Alpino Uzturrek hilaren 23, 24 eta 25erako. Izen-ematea, elkartearen (Gudari 5, behea. 943 65 27 89).

Tolosa. Iturriza elkarteak Brioneseko Ardoaren Museora irteera antolatu du abuztuaren 5erako. Izen-ematea, elkartearen (Euskal Herria plaza).

Tolosa. Etzi, astelehena, odol bankoa etorriko da Kultur Etxera. Odol emaleei egiten zaie deialdia. 18:30etik 20:30era.

JAIK

Albiztur (Santa Marina). Bihar 12:30an meza nagusia; ondoren Arandia anaia trikitilariak; arratsaldean herri kirolak mar Irigoien eta Izeta IV.a harri-jasotzaileekin; Millan Telleria eta Anjel Mari Peñagariko bertsolariak; eta Arandia anaia trikitilarien saioa.

Alegia. Ikusi egitarua 5. orrian.

Asteasu (Santa Marina). Haur jolasak 17:00etan; V. Nazioarteko Toka Txapelketa 18:30ean; Izer eta Luxurdio trikitilariak 23:00etatik goizaldera arte eta ondoren txokolatada.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Leitza. Erbiti, O. Lizarraga 7. 112.
Tolosa. Santamaria, I. Nafarroa etorbidea 2. 943 65 46 10.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esaneri iriztien erantzukizunik.

Artea kalean

TOLOSA ▶ Malen Urtzelairen margolan erakusketa ikus daiteke egun hauetan Sorron koadro dendan; gai abstraktoak erabiltzen ditu



Koloretsuak dira oso Malen Urtzelai Sorron koadro dendan jarri duen erakusketako koadroak. JOXEMI SAIZAR

JOXEMI SAIZAR

Kalean zoazela paseatzen artea topo egiten duzu bat-batean erakusleihen batean. Tolosako Korreo kalean, adibidez, Sorron koadro dendan. Duela urtebete bezala, Malen Urtzelai margolan erakusketa jarri du bertan. Orduan bezala abstraktoak dira erabiltzeko gaiak, kubismoa duelako gustuko, «Picasso eta



Margolan ugari ditu jarrita erakusketan. J.SAIZAR

Cezanne batez ere». Forma geometrikoak eta kolore biziak dira nagusi erakusketa honetan. Teknika aldetik berriz, olioia erabiltzen du tolosar honek.

Berandu hasi zen Urtzelai margotzen, duela zazpi bat urte. Jostuna izan da betidanik, baina baita ere betidanik gustatu izan zaio margotzea. «Zerbait aurrean» duela egiten du lan margolari tolosarrak eta horretan lehen aipatutako bi maisuak dira erreferentzia garrantzitsuak.

Askotan erakutsi izan ditu Urtzelai bere lanak eta sari batzuk ere irabazi izan ditu, iaz Txinparta elkarteak sangoan antolatutako erakusketan esaterako. Zezenketen inguruko margoaren saria eskuratu zuen *Capote en el ruedo* lana-rekin.


Hilaren bukaera arte egongo dira artelan hauek ikusgai Sorron dendan. Udako paseatzailer lasaien begirada ehizatzeko asmotan. Ikuskizuna eta denborapasa doan. Eta bitartean, herriko artista afizionatuei bere lanak erakusteko aukera eskaintzen die denda honek, zaletasun hori areagotzeko bide bat eskainiz.

AGURRAK ▶




URTE ASKOAN

Urkok gaur 4 urte. Alaineak eta Unaxek abuztuaren 1ean 2 urte. Zorionak!



ZORIONAK

Axier eta Alazne (Anoeta).
Ondo pasa zuen ezkontz egunean familiakoen partetik.



URTE ASKOAN

Jokin Aiestaran Irigoien (Tolosa). Gaur 2 urte. Zorionak familaren partetik.

HITZA, zorion agurren

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, **tartea** ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:

HITZAren egoitzara:
Araba etorbidea, 5 behea - TOLOSA
Udaletxeko bulegoa - LEITZA

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker!